


# berkeire

2005eko MAIATZA,  
133. ZENB. DOHAINIK

jon korta  
zumaiar bat  
**VATIKANOAN**



## HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

### Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

### Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

### Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

### Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Itziar Garate

Izaskun Urbietta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

### Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Joanito Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Karmelo Arroiabe,

Gorka Ormazuri, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia, Beñat

Fernandez de Arroyabe, Ihintz

Linazisoro, Jon Maia, Eguzki

Agirrezabalaga, Natur Taldea, Ander

Hormazuri, Aitor Manterola, Imanol

Garate,

Joseba Esnal.

### Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

### Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

### Publizitatea

943 86 15 45 tel.

### Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

### Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

**Baleikek ez du bere gain**

hartzen aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien erantzukizunik.

## aurkibidea

librean .....	4
puntocom .....	7
ze berri? <b>emakume martxa</b> .....	9
<b>liburutegia interneten</b> .....	10
elkarrizketa <b>jon korta</b> .....	12
orain hamar urte .....	15
hezkuntza <b>institutuko ikasleak danimarkan</b> .....	16
historia <b>gerra zibilari buruzko erakusketa</b> .....	18
ibilbidea .....	22
gure zumai zarra <b>joxe manuel manterola</b> .....	24
kultura .....	28
<b>literatura</b> <b>divergentes</b> <b>arte</b> <b>zine forum</b> .....	28
agenda .....	34



historia  
**gerra garaiko**  
dokumentazio, argazki,  
tresna, arma eta abarren  
erakusketa maiatzaren  
26tik ekainaren 19ra  
bitartean Alondegian

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA

## amigo, amigo

Amigo! Bere arriskuak ditu aurrera begiratzeak, baina noranzko batean izan behar badu, hobe aurrerantz. Gaztelaniaz "El cuento de la lechera" esaten zaion hori. Nork ez ditu planak egin marmita txiki-kin, behintzat. Atzeak erakusten omen digu aurea nola dantzatu, baina aurrera begira dantzatzeko, dantza bera moldatu beharra dago. Gainera atzera begira egonda gutxi aurreratzen dugu. Gure nahia aurrera egitea bada, bidegurutzean erabakiak hartu behar dira. Batzuek esne-bidea adinako luzea nahiko dute eta besteek atajo edo laburbidea nahiago. Badira noranzko bakarreakoak, peaje garestidunak, bidezidorrak...

Herrira da gorputza, hizkuntza bihotza eta burua? Zerbait baliozkoa badugu horixe. Esne biltzaitetik "La vaca que rie" bezala bizi nahi dueneraino. Ibili burua erabakitzeke, aurrera joateko, atzera begiratzeke, dantzatzeko... baina baita bidelagunez oroitzeko ere.



Uhin Loiola

## zumaia, eskerrik asko!!!

Bai, Korrika 14 pasa zen, baina guri ez zaigu pasa eskerrak ematea parte hartu duzuen guztioi; izan ere, inoiz bildu al da hainbeste jende Erribera kalean?? (Ezta zapatu arratsaldean ere!) Ikusi ez zenuitenok ederra galdu zenuten...

Mila esker, beraz, Korrika eta AEKren izenean, denoi: Maria eta Joseko eta Herri Eskolako arduradun eta irakasle gogotsuei, egindako lanagatik eta botatako izerdiagatik; Zumaia Udalari, eman duen laguntza handiarengatik (oraingoan ere kirolaria falta genuen arren...); Kilometroa erosi duzuen herriko sindikatu, politikari, eta kultur eta kirol taldeei eta koadrila bakarrari; Korrika Laguntzaile egin zaretenoi; Korrika Lagun egin zareten dendari eta tabernariei; herriko prentsako langileei eta saltaka egin duzuen zuetako bakoitzari.

Hori dena, ordea, bi urtez behin indarrak horretan jartzen dituzuen guztioi ere zor dizuegu: Zuek gabe Korrikarik ez legoke: mila muxu guztiontzat. Eta gogoratu afaria dugula!!



Erribera Kalea 18 behe, 20750 Zumaiak. Tlf: 943 53 53 05 e-mail:ekin@ekin.com www.ekin.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



DIGITAL+

CANAL+



fisioterapia zentroa  
igor agirre eta idoia uranga

Tel./Fax: 943 53 53 05 • e-mail ongizan@euskalnet.net  
Itzurun Zuhaitz-bidea 3-behea • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)

# LEHENGO MUNDUAREN AZKENAK

inazio tolosa

Gogoan dut oraindik ere, nola Antoniak buru gainean zinkezko balde hura eramaten zuen, zuzen, hain dotore, Goiko Torreko azken etxetik, solfeo ondoko alberga zahar-rreraino, bertako askan arropak garbitzeko.

Niretzat lan hori era horretara betetzen zuen azken emakumea zen, superwoman matxakatuaren artean azken emakumea, eskuak hotz, burua xuxen, emakume handia eta sendoa zen Antonia, dotorea eta serioa.

Aurreko emakume guztiak, ordea, handik pasatuak ziren, Alberga zahar hark munduko arropa guztiak garbitzeko aukera zuen. Arropak garbitzeko era bakarra eta onena zirudien orduan (ez zegoen besterik). Askasun belaunikatu, eta harriaren kontra eragin, astindu, astindu, ur hotzetan sartu izarak, galtzak, pardelak, kuleroak eta abar eta abar zerrendan... eta... eragin uretan gora eta behera, eragin eta ur hotzetan berriro, xaboi pixka bat eman, astindu... eta arropa kiribildu eta ondoren, balde zabal batean sartu etxeko atarian edo balkoian zintzilikatzeko.

Zentrifugatu, programatu eta antzeko hitzak ez ziren existitzen. Lan umil, gogorra eta neketsua baino ez da izan emakumeen historian. Albergak horren eredu izan dira, eta halaxe izan da orain dela hogeita hamabost-berrogei urte arte gutxi gorabehera, eta historiaurreko baldintza gisa ikusten dugu gaurko eguneko distantziatik, zein ahula den memoria.

Egia da, baita ere, albergetatik ur soina eta kolpe artean kantua entzuten zela, barreak eta algarak ere, kontakati-

luen marmarrak eta bertan azken berriak jakiteko aukera zegoela, emakumeen arteko loturak eta haserreak. Harremanetarako lekua zen alberga.

Eta Antoniaren kantuak etortzen zaizkit gogora, hantxe egoten ginen burdinazko itxitura zuen leihotik begira, kartzela bati begira egongo bagina bezala, kristalik gabeko leiho hartan, eskuak burdinari lotuak, hankak koskaren gainean, zelatan, Andaluziako koplak entzuten, Antoniaren ahots garraztetik irteten ziren koplak.

Ikasia genuen ordu-rako, hura ez zela mutilen munduko lurraldea. Han ezin ginela jolastu. Ura, eta askak, eta lekua, jolasteko tentagarriak suertatzen bazitzaizkigun ere, hura ez zen guretzat, han ikusleak baino ez ginen.

Beheko albergako emakumeek taldean abesten zuten, eta bai kantuak, bai algarak, uraren soinuarekin nahasten ziren oihartzun berezi bat sortuz. Albergak oihartzun berezia zuten.

Goiko alberga zaharra bota dute, nire esperantza tontokak, konpondu eta historiaren testigu mutu bezala utziko zutelara esaten zidan, baina nonbait halako testiguen ez dute merezi gordetzea, ez dira etorkizunari eman behar diegun ereduak, hobe kanoiak eta antzekoak, baina alberga konpondu eta halakoak tira, tira... Gainera, emakumeen kantuak dira horiek eta badakizue... emakumeen historia ez da ia existitzen.

Ariyo Alberga Zaharra.



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN  
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel./Fax: 943 143 102 - Juan Belnorne, 2 bajo - 20750 ZUMAIA

## OZTOPO GUZTIEN GAINETIK

Txinparta euskara taldea

Asko izan dira Zumaian euskara talde bat sortzeko ahaleginak, baina, zoritxarrez, bidean geratu ziren talde horiek. Gu ahalegin berri bat egiteko asmoz gatoz.

Hain ugariak izan ez diren arren, normalkuntza plangintzak ezartzeko saiakerak ere egin dira herrian. Denok izan dugu gogoan Kontseilua-ren plangintza, Bai Euskarari lemapean belodromo guztiak betetzera eraman gintuena. Zumaiaiko Udalak, garai hartan, Siadecoren plangintza lehenetsi zuen, eta aholkularitza horrek 2002-2006 eperako plangintza aurkeztu zuen. Plangintza egokia, gure ustez, baina paperetik haratago egin ez duena. Orain, berriz, EBPN onartu du Udalak.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako plan teorikoa da. Udalak, plan teoriko horretan oinarrituta, Zumaiaiko EBPN aurkeztu du (lau urterako), baina ez du herritarrekin eztabaidatu, eta ez da herriaren errealitatera egokitu. Udalak, hori guztia aurrera eramateko, Aholku

Batzorde bat sortu du, eta, batzorde horretan, herriko hainbat esparrutako jendea bildu du. Batzorde horren jarduna, ordea, aholkua ematera soilik mugatu da, ez du haratago joateko aukerarik eskaintzen. Eta hori da gure kezka nagusia. Aholku Batzordeak normalkuntza plan hori bideratu egin behar duela iruditzen zaigu, herritarren kezkak, iritziak, proposamenak, ideiak bildu, kon-tuan hartu eta, ahal den heinean, hori guztia normalkuntza plangintza batean txertatzea. Horrela osatu ahal izango baita Zumaiaik behar duen plangintza.

Erronka zail horri aurre egiteko beharrezkoa iruditzen zaigu Udalak bere jarrera eta ezarri dituen baldintzak aldatzea. Euskara teknikariaren lanpostu finkoa bete behar da, normalkuntza teknikariak bere betebeharrei buru-belarri ekiteko. Aholku Batzordearen izaera ere egokitu behar da, bera izan dadin plangintza-ren eragile nagusia, eta guztion ize-nean erabaki dezan herriarentzat egokia den plangintza.

Ezin uka, EBPNak Txinpartaren lehentasunetako bat izan behar duela, baina, ez da hori abiarazi nahi dugun borroka bakarra. Gure helburu nagusiak bi dira: batetik, euskara elkarte sendo bat sortzea, herriaren eta herritarren beharrei eta hutsuneei erantzuteko, eta, bestetik, osoko normalkuntza plan bat bultzatzea, gabeziak dituzten arlo guztiak lantzeko.

Prest gaude bide horri ekiteko, eta bidelagun berriek ere lekua dute. Horregatik guztiagatik, herritarren kezkak, proposamenak, ideiak ere ezagutu nahi ditugu. Horregatik jar-tzen dugu guztion eskura gure helbide elektronikoa, nahi duzuenarako: txinpartazumaia@euskalerrria.org.

Eskerrak emanez amaitu nahi dugu orrialde hau. Eskerrik asko, Baleike, aukera hau eskaintzeagatik, eta web-gunean eztabaidari bide emateagatik. Eskerrik asko, halaber, zuen babes eman diguzuen guztioi, aurrera jarraitzeko emandako adorea-gatik, eta horri esker erabaki sendo bat hartu dugulako: oztopo guztien gainetik aurrera!

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12  
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

**TOMAS  
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitar-tekoak


E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

# Eman botoa!

Bisitari eta erabiltzaile kopurua handitzen doa hiletik hilerara. Gaztetxe bat egitearen aldarrikapenak jarraipen handia izan du eta iritziak ere ugariak izan dira. Badirudi, ordea, lan egiteko gogoia ez dela hain handia. Alboan ikusten duzuenek, erabiltzaile askok eman dute botoa inkestaren atalean. Inoiz baino estuago egon da emaitza eta esan liteke foto finishean erabaki dela.

## INKESTA



## IRITZI BATZUK

### •• Hori bat gartetxe bat!

Itxar. 2005/04/28 - 11:49 AM

Bai, Zumaiako Gaste Batzordea egon ZEN, baina orain non dago? Bida al da azken urteetan? Zein ekintza eraman ditu aurrera? Nik ere nahiko nuke Zumaiako Gartetxe bat egotea, baina horretarako aurrera Gaste Batzordea berpiztu beharrik dagoenik, mugimendu bat antolatu, eta ondoren ekintza horiek aurrera ateratzeko gure bat ezam (gartetxe edo dana delakoa).

Erantzun gai nagusiarri || Erantzun honi

### •• Hori bat gartetxe bat!

Xpel. 2005/04/28 - 01:24 PM

Guztiz ados nago Itxarrekin. Gartetxe bat ez da egoteko leku bat, dinamikak ezberdinak aurrera eramateko leku bat baizik, antolamendu bat eta aktibotasun handia eskatzen duena. Ni izango nintzateke lehena postean Zumaiako gaste mugimendu zendo eta aktiboa egoteaz, baina hori egon bitartean, ez dut uste Gartetxe beharrik dagoenik, gasteak batzate egoteko leku bat berterik ez baitzen izango. Beritaz, gaste mugimendurik baldin badago Zumaiako, erakutsi kalean, antolatu ekintzak eta erakutsi herriari gasteak mugimendu hauek eta ekintza hauek aurrera eramateko leku baten premia dutela. Denontzat benin pizgarria litzatekeela uste dut.

### •• Hori bat gartetxe bat!

segiok. 2005/04/29 - 02:35 PM

Gaur egun zumaiako dauden hainbat talde atzerapik ez dala ta ez dala nua enaizatek. Udakoak Muska eskola atean dauden bi gelatxo ahalbidetzen ditu zumaiako talde guztiak jotzeko. Gainera urtebete pasa danian herenarik bota eta beste batzuk sartzen dira. Hainala beste urtebeten gure herriko taldeak kaliai daue nun ja ez dala. Druk ez dala herriko lokalak gabe galduta eta beste antolatutako urte baina aurrera juleko bide ekonomikoak ez dutenak. Pizgarria, anso, Arbolak, eta eskubidea, berrindaritze ta beste erakutsi ekintzen dirua ematen nare. gainera guren u darenten bat in bar emen dute????????? Bate uste apaitzen muska eta kultura ta siriadisa buftzatsia da. Zergatik herri ez tzaie ematen aukera bat beste daniel emen zaien beretala? Hau dela eta nire urte lekuak horiena honelako jardura bat aurrera eramateko gartetxe bat izango litzateke betean muska ez eziki beste zenbat ekintza osoo kulturali aurrera eraman ahal izango zian ta. Zumaiako udalari, naitz eta behin baino gelagitan enaizateko lokal gelago eukatu uke egin dote gure erakutsiari, naitz idatzi eukatu nahio eta bertara auzpegia amanez jaan). Berez lokal bat ahalbidetu dazatela. besteala okupatu dezogun bat Avaca. beste bat da ordea, gauca da zumaiako ez dela honelako mugimendurik nahi. Lokal bat udalari ahalbidetuta diru galera izango bait zen eta ordea dagoeneko zumaiako udalari naitzago du lokal batengatik dirua atara gastei ematea baino. Gainera honelako lokal bat gaizki ikusia izango zen zumaiako jende alduentzat ezta ta beste ezer ez litzateko izango. Gainera zertarako enaiki bere ideien berdinak buftzatsia ez dituen erakin bat? Hobe da gasteak taberna zutotan ezta ta ezertan ez gertatzea ta konsumismo utzera buftzatsia. Zertarako pentratu berantzat or ondo gaude inongo trabarik emen gabe. Berez euek aktibotasun esan deuen berela deialdi bat egon dezogun Gaste batzordea sortu idarara arto eta udalaren kontra jotzeko, edo berritatz gasteak zumaiako herriko guden adierazteko. Berez gasteen eta erakutsi deialdi gure zumaiako gasteak hitza badiutela.

ETXE BAT ARTZEA ALKERIA BARARRA ZUEN IDEIAK ERAKUSTAL IZATEA OKUPAZIOA EZ DA DELETUA

dekorazioa

# ALBERDI

696 726188  
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



**TXINGURRI**

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAI  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ  
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

- Jardinen diseinu ... mantenimendua
- Nekazaritza zerbitzuak
- Kiral zelaien mantenimendua
- Txostenak ... aholkularitza teknikoak,
- Balazioak



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309

# Alberdi

Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155

**GANBARA**  
Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

**Zumaia Hotela**

Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64

# TOKIKO AGENDA 21



## HELBURUEN PROPOSAMENA

Tokiko Agenda 21a egitasmoan herritarren parte hartzea bultzatzen da. Udalerriaren etorkizuna guztion ardura da eta momentu honetan, herriaren diagnostikoa oinarrituz hartuta helburuak proposatzeko unea da.

Udalerriko diagnostikoak herriko gai desberdinak aztertzen ditu. Ekintza Plana egiteko gai bakoitzeko helburu orokorrak, helburu zehatzak eta ekintzak finkatu beharko dira. Horrenbestez, apirilaren 12an egin zen parte hartze foroan zenbait helburu eta ekintzen proposamenak jasoz ziren. Momentu honetan proposamen horiek banan banan azertu beharko dira eta posible direnak Ekintza Planean txerretatuko dira.

Hauetako besteak beste atzerako proposamenak gai batzuen inguruan:

- Osasuna:
  - Eskualde mailan espezializazioak dituen osasun zentro bat sustatu
- Jarduera ekonomikoak
  - Eskaintza turistikoa osatu
  - Zumaiko merkataritzak ematen duen zerbitzu eta kalitatearen gain inkesta bat burutzea

- Etxebizitza
  - Etxebizitza hutsen alokairua sustatu: Jarrera positiboaz alokatzen duenarentzat. Alokairu poltsa sortu
  - BOE-ko etxebizitzaren alokairua eskaini
- M ugi kortsuna
  - Trafikoa erregulatzeko alternatiben azterketa
  - Oinezkoen eta bidegorrien erabilera bultzatzeko bide sareen benetako zabalpena
  - Aparkalekuak prezio sozialetan
  - Gune historikoen indartzeak trafikoa eragin dezaken eragira azertu
- Ingurumena (Hondakinak, Energia, Zarata, Ura, ... )
  - Zaborra murrizteko plangintza bat egin
  - Konpostajea bultzatu
  - Zarataren inguruan ordenantza ateratzea
  - Garbigunea erabiltzeko sentsibilizazio kanpainak burutu
  - Udal instalakuntzetan energia berrizta garrien erabilera azertu
  - Energia kontsumoaren aldizkako kontrola burutu
  - Tabernetako zarata kontrolatu plan baten bitartez
  - Kutsadura luminikoa jaisteko lanpara egokiak ezarri
  - Fluxu erreduktorekin sistemak eta kontsumo txikiko lanparak kaleetan ezarri
  - Sareak galtzen duen ur garbier portzentaia murriztu: Itesak bilatu
  - Ur zikinen Saneamendu sarea osatu
  - Landa gunean hondakinentzat edukiontzia ezartzeko azterketa burutu

INFORMAZIO GEHIAGO:  
Tel.: 943 89 00 45  
[www.urolakosta.org](http://www.urolakosta.org)  
[agenda21@urolakosta.org](mailto:agenda21@urolakosta.org)



LIBRERUDENDA

Alta-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569



Baselri Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

## Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

## Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrian

Martxoaren 8an abiatu zen Brasildik eta maiatzaren amaieran pasako da Euskal Herritik Emakumeen II. Mundu Martxa. Apirileko Baleiken azaltzen genuen bezala, Mundu Martxa honek jatorri etniko, kultural, erlijioso, politiko, klase, adin eta orientazio sexual desberdineko emakumeak biltzen ditu. Ekimen honen helburuetako batzuk munduko pobrezia amaitzea, aberastasuna banatzea eta emakumeen aurkako indarkeria bukatzea dira.

Maiatzaren 24tik 27ra bitartean igaroko da Martxaren erreleboa Euskal Herritik. Beronen helburuak eta aldarrikapenak sozializatzeko, Martxa kulturala antolatu dute Urola Kosta eskualdean ekimen honekin bat egiten duten taldeek. Hainbat kultur ekintza antolatu dira eskualdeko herrietan: hitzaldiak, antzerki saioa, bertso afariak, kantaldiak eta abar.

Zumaian bi kultur ekitaldi egingo dira datozen asteetan: zinema saioa eta antzerki emanaldia. Maiatzaren 19an zineforum saio berezia izango da. Ohiko orduan, 22:15ean, *Moolaadé* pelikula senegaldarra eskainiko da Aita Mari zineman. Afrikako herrixka batean bizi diren lau neskatxaren istorioa kontatzen du film honek. Ablazioaren erritual barbaroa jasateko ordua hel-



zten zaienean, neskatok etxetik ihes egingo dute. Irudi ikusgarriak ditu pelikula honek eta hainbat sari jaso ditu, horien artean 2004ko Canneseko zinemaldian eskuratutakoa.

Ekainaren 17an izango da bigarren kultur ekitaldia. Gaueko 10etan, Oxford aretoan, *Pakitarentzat bakarrik* izeneko antzerki saioa ikusiko da. Txalo produkzioen lan honetan Pakita bulegari arrunt eta ezkongabe bat da. Kafe gehiegi hartzen du bakarrik sentitzen delako, eta bingoaren menpe bizi da. Maiteminduta dagoela aitortzen du, baina amodioa sendatu beharreko gaixotasun bat dela uste du, eta keza paranoikoak egozten dizkio gizarteari. Pakita taldeko terapia batean dago ulermena bilatzeko, baina ezusteko bat izango du.

Bi data hauen artean, maiatzaren 26an, Martxa Gipuzkoan sartzen den

egunean, manifestazioa egingo da Donostian. Urola Kostako taldeek auto karabana bat antolatu dute Donostiara joateko. Karabana Azkoititik irtengo da eta eskualdeko herriak zeharkatu ondoren Donostiara abiatuko da. Manifestazioa Donostiako Bulebarrean izango da arratsaldeko 7:30ean.

### EGITARAUA

**Maiatzak 19, 22:15ean**  
Zine saioa: *Moolaadé*.  
Aita Mari zineman.

**Maiatzak 26**  
Auto Karabana  
Azkoititik Donostiara.

**Ekainak 17, 22:00etan**  
Antzerkia: *Pakitarentzat bakarrik*.  
Oxforden.

## H o r t z k l i n i k a

Mozès Hiriart eta SOULIER

Odontologoak

- \* Odontologia orokorra
- \* Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- \* Endodontzia
- \* Inplantologia
- \* Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- \* Protesia
- \* Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

**Larunbatetan egun osoa zabalik**

**Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278**



**ALBAITARITZZA  
KLINIKAK**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIAK-

astelenetik ostegunera 16:00-19:00  
ostiralak 11:30-19:00  
larunbatak itxita  
**aldez aurretik deitu**

Basadi, 7 behea  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean



# Liburutegiko bazkideek EAEko beste liburutegietako materiala har dezakete

ITSASO IBARRA

Zumaiako udal liburutegia, Eusko Jaurlaritzak sortu duen Euskadiko Liburutegi Sistemaren sarean sartu da. Gaur egun, sarea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 130 liburutegik osatzen dute eta urte amaierarako 270 liburutegi egotea aurreikusten du Jaurlaritzak. Sare honi esker, Zumaiako liburutegiko bazkide denak, sarean dauden gainontzeko liburutegietako katalogoa kontsultatu eta bertako liburuak nahiz ikus-entzunezko materiala mailegatzeko aukera izango du.

Josu Egañak, Zumaiako helduen liburutegiko arduradunak, azaldu duenez, "sarean egoteak dakarren abantaila nagusia informazioa handitzea da. Zumaiako bazkide txartelarekin sarean dauden herri guztietako edozein liburutegitako materiala hartzeko aukera dago. Bestetik, sarean gaudenez edozein tokitatik kontsulta daiteke liburutegietan dagoen materiala".

Horretarako, [www.liburutegiak.euskadi.net](http://www.liburutegiak.euskadi.net) webgunean sartuz liburuak zein liburutegietan dauden ikusteko aukera izango da. Behin behar den liburua erabilgarri non dagoen jakinda, liburuzainari eskatu eta bera arduratuko da Zumaiako liburutegira ekartzeaz. Josu Egañak dioenez, "lehen ere eskaria egin zitekeen, baina erabiltzaileak ez zekien liburua zein tokitan zegoen". Zumaiako liburutegiko bazkide denak Internet bidez mailegatu edo erreserbatu dezake bertako materiala.

Gero, liburutegira pasa beharko du materiala jasotzera.

Kontsultak hainbat tokitan egiteaz gain, sistema berriari esker irakurleak etxean eduki dezakeen materiala ere ugariagoa da. Erabiltzaileak bere udal liburutegiko sei dokumentu har ditzake: hiru liburu eta hiru material berezi (diskoak, bideoak, DVDak...). Bestetik, sareko edozein liburutegitako dokumentuak mailega ditzake: zortzi liburu eta zortzi material berezi. Guztira, 16 dokumentu har daitezke. Horrela, Zumaiako liburutegitik hiru liburu hartu dituenak gainontzeko liburutegietako bost liburu hartzeko aukera izango du.

Maileguen iraupenari dagokionez ere badira aldaketak. Orain arte liburutegiko liburuak hiru astez eduki zitezkeen etxean. Hemendik aurrera berriz, bi astez eduki ahal izango dira liburuak, eta zazpi egunez ikus-entzunezkoak. Liburuak eta material berezien berritzea behin egiteko aukera izango da, eta bakoitzaren epea aurrez zehaztutako berbera izango da. Materiala erreserbatua badago ezingo da berriz hartu.

Sarearen barruan dagoen edozein liburutegitara sartzeko txartel bakarra izango du erabiltzaileak. "Liburutegiko bazkide direnek txartel berria eginda daukate. Komeni da, jendea liburutegira hurbiltzea txartela hartu eta bakoitzari bere pasahitza emateko", dio Josu Egañak. Pasahitzari esker, norberak zein liburu dituen mailega-

Nikol  Enea

**TABERNA**

Amaiako plaza

ad

**AUTOS  
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

tuta eta zein datatan bueltatu behar dituen jakiteko aukera izango du.

### Zumaiako liburutegia

Sarean sartu berri den liburutegiak, 1990ean zabaldu zituen ateak. Gaur egun, helduen eta haurren liburutegiak kontuan hartuz, 16.000 liburu daude eskuragarri. Josu Egañak dioenez, "liburutegi berria denez, fondo berria dauka". Liburuei dagokionez, "literatura mailan nahiko eguneratua dago", azaldu du. Literaturaz gain, duela hiru urte ikus-entzunezko materiala sartzen hasi ziren liburutegian. Oraindik fondo handia ez badago ere, fondoa handitzen jarraitzeko asmoa dutela azaldu du Josu Egañak.

Liburutegiaren erabiltzaileei dagokionez, erabiltzaile mota desberdinak daude, baina batez ere bi multzo egin daitezke: liburuak mailegatzera joaten direnak eta bertan egoten direnak. Josu Egañak dioenez, "liburutegian normalean gazteak egoten dira, 16 eta 24 urte bitartekoak". Garaiaren arabera, batzuk edo besteak egoten dira gehiago. Liburuak mailegatzera joaten direnei dagokienez, berriz, denetik egoten da. Hala ere Josu Egañak dioenez, "emakumeak gehiago ibiltzen dira".



Irakurtzeko hautatzen den hizkuntzari dagokionez, alde nabarmena dago helduen eta haurren liburutegien artean. Helduek liburu gehienak gaztelaniaz mailegatzeten dituzte; haurrek, berriz, nahiago dute euskaraz irakurtzea. Azken boladan haurren artean liburu irakurriena Harry Potter izan da; helduenen artean, berriz, *Ángeles y Demonios* eta *El Código da Vinci*.



**Mota guztietako altzariak**

Xanti Osa

Amaia plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385



**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161


Karmengo Ama, 14  
E-20749 **Airtoa** (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskalnet.net



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L.



**B. Etxegarai 2, behea**  
943 86 27 14



Jon Korta karmeldar ikaslea



*Jon Korta karmeldar ikaslea da eta hiru urte daramatza Erroman, Teologia ikasten. Ikasketak kazetari lanekin uztartzen ditu zumaiarrak. Izan ere, Euskal Telebistan, Euskadi Irratian, irrati katolikoetan eta Espainiako Telebistan kolaboratzen dabil. Horri esker, bertatik bertara ezagutzen du Vatikanoko bizi duen egoera.*

## "Hitz gutxi zuzentzen zizkigun, baina bere isiltasunak hitzez beterik zeuden"

**ITSASO IBARRA**

### **Zerk eraman zaitu Erromara?**

Salamanca filosofia ikasten nengoela Erromara etortzeko aukera eskaini zidaten. Gaur egun teologiako ikasketak egiten nabil Karmeldarrek daukaten nazioarteko ikastetxean. Mundu guztitik etorritako gazteak gaude, 35 denera. Pentsa zenbat hizkuntza eta kultura bizi diren elkarrekin... Aurten hirugarren urtea da hiri eder honetan nagoela. Esperientzia ahaztezina ari naiz bizitzen.

### **Nola bizi izan da Erroman Aita Santuaren heriotza?**

Azkenengo hilabeteetan Aita Santuaren osasun egoera asko aldatu zen. Egoera horrek "alarma" piztu zuen, bai Vatikanon, baita herritarren artean ere. Joan Paulo II.ak inoizko berotasunik handiena jaso du bere azkeneko egunetan. Agonian zehar, San Petri plaza jendez gainezka egon zen, gazteen presentzia nabarmena izan zen, eta hileta elizkizunean milioika pertsona bildu ziren Erroman, azkeneko omenaldia eskaintzeko.

### **Zeuk zerorrek nola bizi izan duzu?**

Aita Santua hil zenean S. Petri plazan nengoan, milaka per-

tsonekin batera. Bagenekien azkenengo orduak zituela. Arrosarioaren otoitza bukatu ondoren, 22:00ak inguruan, jakinarazi ziguten 21:37an Joan Paulo II.a "Aitarene etxera bueltatu zela". Momentu hunkigarria izan zen, bertan bildutakoak txalo zaparrada eskaini baikenion. Joan Paulo II.ak zerbait berezia zuen.

### **Joan Paulo II.a ezagutu zenuen. Nolakoa zen?**

Elizkizun askotan egon naiz Aita Santuarengandik hurbil. Agurtzean, haren begiradarekin gelditzen nintzen; begirada sakonekoa zen. Hitz gutxi zuzentzen zizkigun, baina haren isiltasunak hitzez beterik zeuden.

### **Kanpoan zer gertatu den erakutsi digute, baina barruan zer gertatu da egun hauetan?**

Barruan ez da aparteko sekretismorik egon. Gainera, Vatikanon barruan gertatutako ia guztia zuzenean jarraitzeko aukera izan dugu. Vatikanoko telebistak momentu garrantzitsuenetako irudiak zabaldu ditu.

### **Zein prestaketa egin dira Aita Santu berria aukeratzeko?**

Joan Paulo II.aren heriotzaren ondoren, kardinalek bilerak

egin dituzte Vatikanon hileta elizkizunak antolatzeko, Elizaren kontuak eztabaidatzeko eta konklabea prestatzeko. Horietatik, 115 kardinalak hartu zuten parte XXI. mendeko lehenengo konklabean, denak 80 urte azpikoak. Horiek Vatikanon barruan dagoen ostatu batean egon dira, "Domus Sanctae Marthae"-n, eta hortik hain ezagun den Sixtotar Kaperara joan dira bozkatzera.

### Nolako izan da konklabea?

Konklabe azkarra izan da. Astelehen arratsaldean hasi eta hurrengo egunean Aita Santu berria genuen. Berritasun batzuk ere izan ditu; adibidez, kardinalak ez dira Jauregi Apostolikoan itxita egon. Lorategian eta Vatikanoko beste leku batzuetan ibiltzea izan dute... isilean.

### Zein ezaugarri izan behar ditu Aita Santuak?

Eliza osatzen dugun guztiokin, gizartearekin eta beste erlijioekin elkarrizketa etengabea egiten duena.

### Ratzinger aukeratu dute. Zein iritzi duzu?

Aukeraketa honekin aurreko pontifikatuaren jarraipena ikusten dut. Ratzinger, Joan Paulo II.aren hurbileko kolaboratzailea izan da 1981ean Vatikanoko kargu garrantzitsuenetarikoa (fedearen doktrina zaintzen duen kongregazioko buru) eman ziotenetik. Harrigarria izan da mundu guztiatik etorritako kardinalak egun gutxitan Aita Santu berria aukeratzeko.

### Benedikto XVI.a kontserbadore eta gazteek aldaketa nahi...

Josep Ratzinger kontserbadoretzat jotzen dute, bai, baina Benedikto XVI.ak orain dela gutxi hasi du bere pontifikatua. Gauza berriak etorriko diren esperantza izan dezagun.

### Elizara gero eta gazte gutxiago joaten da.

Begi bistakoa da gazte gutxi direla elizetara joaten dire-



nak, baina Elizaren barruan gazte mugimendu asko daude eta nik horietako batzuk ezagutzeko aukera izan dut. Nondik atera ziren, adibidez, Aita Santuak, orain dela hiru urte, Madrilan bildu zituen 700.000 gazteak? Berehala pentsa dezakegu Opus Dei eta horrelako mugimenduak direla. Batzuk bai, baina ez denak. Elizak gazteengandik hurbil egon behar du, eta beren zalantzei erantzun zuzenak eman. Baina ez dezagun ahaztu Eliza denon artean egin behar dugula.

### Zuk, berriz, 24 urte eta apaiz izateko bidean.


Nire gurasoek txikitatik erakutsi dizkirate kristau balioak. Beti egon naiz Elizaren barruan, akolito, organujole lanean... Zumaian dauden moja karmeldarren bitartez, karmeldarren gazte taldeak ezagutu nituen. Horrela hasi nintzen nire fedea sakonago bizitzen. 18 urte bete nituenean karmeldarren formazioan sartzea erabaki nuen. Ez zen erabaki erraza izan familia utzi eta bizitza berri bati ekitea, baina gustura sentitzen nintzen. Zailtasunak beti egon dira eta beti egongo dira nere bidean. Garrantzitsua norbera bere bidean zoriotsu izatea da, eta ni halaxe nago, zoriotsu.



*Era guztiotako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko argietan*

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23  
Tel. mugikorra: 608 143409



BASADI 28  
20750 ZUMAILA  
GIPUZKOA

**ADI**

tel. fax. 943 535 157  
E-mail: adiele@euzkoalnet.net



### Emakumeak apaiz

Gaur egun, elizaren barruan, emakumeen presentzia handia da; adibidez, emakume teologoak ere badaude. Noiz ikusiko ditugun estola eta meza jantziarekin? Ez dago nire esku...

### Kazetari lanetan ere bazabiltza, zer moduz moldatzen zara?

Azkenengo asteetan lan asko izan dut Joan Paulo II.aren heriotza eta Aita Santu berriaren aukeraketarekin. Erroman kazetaritza egitea oso aberatsa da, munduko hedabide garrantzitsuenekin kontaktuan zaudelako. Egun haue-tako alderdi positiboenetako bat hauxe izan da: euskal irrati-telebisten bidez, euskaldunek hemen gertatu den guztia euskaraz ikusteko eta entzuteko aukera izatea.

### Non ikusten duzu zure etorkizuna?

Ez dut asko atsegin etorkizunean zer egin edo zer izango naizen pentsatzea. Egun bakoitzari bere balioa ematen diot. Nagoen lekuan oso gustura nago.

motxean

**izena:** Jon

**adina:** 24

**ikasketak:** Filosofia eta Teologia

**lanbidea:** Ikaslea

**afizioak:** Musika, kirola, irakurtzea

**Hiri bat:** Erroma

**liburu bat:** Norberaren bitzta

**kantu bat:** Edozein euskal kantu zahar

**film bat:** Schindler-en zerrenda

**maniarik?** Esnagailuari

**san telmo ala san pedro:** Gora biak!



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Sokratua
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

# Arkupe



*Okindegia  
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

# Hauteskunde giroan murgilduta



Udal hauteskunde giroan murgildu zen Baleike 1995eko maiatzean. Hilaren amaieran hurrengo lau urteetarako herriko alkatea aukeratu behar genuen. Gaiak zuen interesagatik, ahalgin berezia egin genuen eta gehigarri berezia atera zen, hautagai guztien iritziak biltzeko. Langabezia handia pairatzen zuen orain 10 urte gure herriak (% 20 ingurukoa) eta etxebizitzaren falta urtetik urtera larritzen zihoan. Gai hauek esku artean, bost hautagai aurkeztzen ziren hauteskundeetara.

Aurreko lau urteetan herriko alkate izandako Ricardo Peña zen EAJko zerrendaburua; "Orain lau urte hasitako programa-rekin jarraitu nahi dugu. Kirol portua hor dago eta gogor borrokatuko dugu proiektua gauzatzeko", azaldu zion aldizkariari.

HBren zerrendaburua Migel Aperribai zen, eta asmo nagusia Udala herriari gehiago hurbiltzea zuen, "herritarren kezkek eza-gutzeko tresna egokiak sortuta". Pedro Uribe zen EAKo zerrendaburua; portuaren eta barraren kontuagatik, Udal gobernuak beste gai batzuk baztertu zituela zioen; estilo berri bat agintzen zuen hautagaiak, eta alkateak zumaia guztiona izan behar zuela aldarrikatzen zuen. Felipe Gutierrez zen, beste legegaldi batez, PSE-EE alderdiko zerrendaburua; herriko auzo guztien artean integrazioa eman behar zela esan ondoren, promozio publiko eta alokairu baxuko etxebizitzaren apustua egiten zuen. IU-EB lehen aldiz aurkeztzen zen Zumaian hauteskundeetan eta Juan Antonio Guerra zen zerrendaburua; honek ere zioen Udala portuaren gaian gehiegi zentratu zela; Udalak herritarren zerbitzura egon behar zuela aipatu ondoren, zerbitzu publikoak bultzatzeko apustua egiten zuen.

Hautagaiez gain, alkate berriari hurrengo lau urteetan zer eskatuko lioketen galdetu genien zenbait zumaia-ri. Ismael Manterolak jendearen iritziak entzutea eskatzen zion; Luis Mari Goikoetxeak kirolaren gainean laguntza gehiago izatea; Luis Mari Aizpuruak alderdien aginduak pixka bat bazterteza eta zumaia-riren iritzia gehiago kontuan hartzea; eta Aitor Leizak balio ekologiko handiko tokiak babestea.

Hauteskundeak alde batera utzita, herritar talde batek Tindoufeko basamortura egindako bidaia baten berri ere ematen zen. Saharari herriarekin egun batzuk pasa zituzten zumaia-ri haiek eta atera zuten ondorioetako bat izan zen sahararrek beren herria izugarri maite dutela.

Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen hasi ziren 3. sektorean 1995eko udaberrian. 36 etxebizitzako lehen blokea altxatzen hasi ziren. Orain auzategi handia dena, orain 10 urte baratzek besterik ez ziren.

Horiez gain, beste hainbat gai ere biltzen zituen aldizkariak: Santelmoak argazkitan, plaiarioak eta pala txapelketak, Jarraiek txosnen inguruan idatzitako gutuna, ohiko atalak eta abar. Hurrengo hilabetera arte.



**AITA MARI**  
**KAFETEGIA**

Julio Beobide, 15    Tel. 943 861395    Zumaiar

garabidun kamioia    basakulagaria  
garabidun: 15m-11u.

**GARRAIOAK**  
Asensio Artetxe Iturbe

Tel.: 943 557 189 / 655 706 557  
Izurtari, 5 2A (Aumain) • Aitzpilgorta, 16 F (Mendiri)

**gofi**  
haur jantziak

Amaiaiko plaza z/g    Tel. 943 860959

Zumaiako Institutuko Lehengo Batxilergoko 25 ikaslek Danimarkako bidaiia (Horsens herrira) egin zuten apirilaren 6tik 12ra. Horsens herriak 50.000 biztanle inguru ditu eta Aarhus hiritik gertu dago. Aarhus hiria

Danimarkako bigarren hiri handiena da. Ikasketak eta elkarkidetzak, lana eta turismoa uztartu dituzte ikasleek egun hauetan. Hemen dituzue Institutuko ikasle beraiek idatzitako hiru idatzi.

# Danimarkara bidaiia: hiru ikuspuntu



Maddi Aldalur, Nadet Egaña, Eli Oiartzabal **Logse 1B**

Danimarkako bidaiak esperientzia berri bat bizitzeko aukera eman digu. Bizimodu ezberdin bat ezagutu dugu, geurea ez dela bakarra ohartarazi diguna.

Gehien harritu gaituena kale giroaren falta eta beraiek lagunartean duten harremana izan da. Oso talde txiki eta itxiak osatzen dituzte. Talde barnean harremana oso estua da, baina besteekin ez ziren asko erlazionatzen. Bestalde, neska eta mutil baten arteko lagun harreman estu batean, ezer gehiagorik nahi ez izatea ez zuten ulertzen. Hori bai, gaua iritsi eta pare bat zerbeza edan ondoren, eraldaketa nabarmena gertatzen zen.

Beste ezberdintasun nabarmena jatorduen antolaketa izan da. Astebete igaro arren, ez ginen ohitu. Gosaria hemengoaren antzera egiten zuten, baina 10ak edo 11k aldera bazkaltzen hasten ziren, gu oraindik gosariari bueltak ematen ari ginela edo hamaiketakoan pentsatzen geundenean. Beraz, beraien kafe orduan gure tripak bazkaria eskatzen zigun. Gero, seiak edo zazpiak inguruan, oraindik egun argiz, eta poteoan pentsatzen, hara non eta mahaia hanburgesa edo pizzaz beterik ikusten dugun! Eta noski, hamarrak aldera, berriro goseak. Horrela, egun guztia jaten pasatzen genuen, beraien ohiturretara moldatu ezinik.

Agian, nahiko kritikoak izan gara Danimarkako gure kideekin, baina dena ez da izan gure lagunek aipatu duten bezain polita. Hala ere, denontzat aberasgarria izan da, nahiz eta batzuek besteek baino hobeto pasa.



**Rosi**  
garbiketak

\* Etxeak eta dendak  
\* Enpresa eta auzo lanak  
\* Errota garbiketeta eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

**Galdona**  
  
burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

English School  
**Harvest**

Ingeleseko klaseak adin guztietan  
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Ana Ugalde- Maria Fernandez Sayavera

## Logse 1A

Zumaia -Horsens 2005-05-03

Danimarkako hotza izan zen agian, edo hegazkineko gorabeherak, kontua da lur daniarretan gure izaeraren bat ahaztu genuela (baita pare bat kilo ere!). Zumaian gure San Telmo maiteen giroa bukatzeaz zegoelarik, han geunden gu gure ingeles apurra praktikatu nahian. Hamabi orduko bidaia luzearen ondoren, nerbio eta ilusio artean lurreratu ginen Aarhus-eko aireportuan. Arraroa eta hotza izan zen haiekin izandako lehen kontaktua: gure intentzio onenarekin bi muxu ematera hurbildu, eta ez ziguten, ba, harriduraz masaila aldendu! Lehen hitzak: "Where is the toilet?" (non dago komuna?).

Goiz jaikitzen dira, gero, daniar hauek! Lehenengo eguzki izpiekin batera daniar kideak "We have to go to school" (eskolara joan behar dugu); beraz, presaka jantzi, nolabait gosaldtu, eta eskolan ginen gure lagunekin inpresioak elkarri azaltzen. Gure arteko izotzaldia urtzeko edo, talde mistoetan bildu eta beraien ohiturak eta gureak oso desberdinak direla egiaztatu genuen.

Hurrengo egunetan daniarrek herrialdeko bazterrak ezagutzera eraman gintuzten (Legoland = lego pieza txikiekin egindako jolas parke bitxia, Aarhus hiria = Danimarkako bigarren hiri handiena), baita beraien denbora librean bisitatzen dituzten lekuak ere: bolera, Paddy's diskoteka...

Arratsalde batean beraien gastronomiaz gozatu ahal izan genuen beraien prestatutako jakiekin. Harrituta geratu ziren bat-batean trikitixa hotsa entzun eta Manex bertsoan hasi zenean. Zer esanik ez, gure kide batzuk fandango eta arin-arin erritmo biziekin dantzan hasi zirenean jarri zuten aurpegia!! Gau alai hura kalejira batekin amaitu genuen.

Igandea izan zen kide guztiak bildu ez ginen egun bakarra, egun horretan familiarekin gozatzeko aukera izan baikenuen. Batzuk hondartzara joan ziren; beste batzuk, berriz, "mendira" -harro-harro 200... metroko mendirik altuena erakutsi ziguten... Presta daitezela Euskal Herrira iritsi eta Izarraitzeko mendikatea ikusteko!

Malkotan hartu genuen asteartea. Gure ingelesa perfekzio maila batera hurbiltzen ari zenean etxera itzuli behar! Hain esperientzia ona bizitako kideei agur esan ondoren, betiko geldituko den argazkia atera genuen. See you soon, guys!! (laster arte!)

Manex Elola

## Logse 1 A

Danimarkako berezitasunik erakargarrietakoa gaua bizitzeko modua da. Bertan, gure adineko gazteek ezin dutenez edozein taberna edo diskotekatan sartu 21 urte bete arte, beraien irtenbidea etxeetan antolatutako festak dira (private party). Festa hauek denok noizbait telebistan ikusi ditugun amerikar estilokoak dira. Gertuko lagunak etxe batean bildu eta nahiz eta gurasoak ondoko gelan aurkitu, bakoitzak bere edaria eramaten du, musika entzunez egundoko mozkorra hartu arte. Bizilagunekin ez zuten arazorik izaten, denak txalet edo familia bakarreko etxeetan bizi baitziren.



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379







*Maiatzaren 26tik ekainaren 19ra bitartean, Alondeg  
Zaharrean (Oxford) gerra garaiko dokumentazio, argazki,  
tresna, arma eta abarren erakusketa egongo da egunero.  
Larunbatetan eta igandeetan goizez (goizeko 11:30etik  
eguerdiko 13:30ak arte) eta arratsaldez (17:00etatik  
20:30ak arte) eta astegun buruzurietan arratsaldeko  
17:00etatik 20:30ak arte.*

## “Bildutako materiala Zumaiako herriarentzat ondare bat da.”

ABELIN LINAZISORO

Lehen Zumaiatik bidaliak izan ziren familien gainean oinarritutako erakusketa bat egin zela ikusirik, orduko arduradunarengana jo dugu, Joseba Esnal Albizurengana, elkarrizketa bat egiteko asmoz. Harritu egin gara ardura-dun baten tokian hiru direla ikustean. Joseba bera, Giller-mo Urbieta Etxabe eta Jon Gutierrez Hirigoien. Itxura denez, lehendik kezka berak bultzatuta zebiltzanak elka-rrekin topo egin eta elkarrekin bide bera egitea pentsatu dute. Ikaragarri lan handia egin eta material pila inguratu ahal izan dutela esan beharra dago. Elkarrizketa egin dugun lekuan jarritako hormatik hormako mahai handi bat tresnez bete zeukaten erabat, erakusketa nolakoa izango den ideia bat izan genezan.

**Zergatik erabaki duzue beste erakusketa hau egitea?**

JOSEBA: Lehengo erakusketaren oinarria herritik kanporatuak izan zirenean izan zan eta beste dana hutsune historiografiko haundiakin osatu giñun. Gero, Zumaia-



ko abertzaletasun liburu hura atera zan eta urte hartatik hona zer pasa da? Ba, material pila azaldu dala. Hirurok ibili gea lanean. Batek gauza batzuek zeuzkan gordeta itxian, besteak beste batzuek, herritarrek ere materiala uzten joan zaigu, eta honela, hainbeste material pilatu ondoren, beste erakusketa bat egitea pentsatu genun. Material berrixa, datu gehixo, argazki ugari... eta pentsatu giñun Bilbon Fundación Sabino Aranak daukan erakusketara jotzea. *Nunca más imágenes de guerra* du izenburua honek. Erakusketa hori orokorra da, Euskal Herri mailakoa, baina Zumaiari buruz ez du ezer ekartzen. Guk hasieran pentsatu giñun gure erakusketa Fundazio-ko honen osagarria izango zala,

## “Bi aldeetako materiala nahi genuen, galtzailearena eta irabazlearena”

baina konturatu gea daukagun materiala asko dala, guk beraiek ez daukaten material asko daukagula eta hau Zumaiako herriarentzako ondare bat dala. Honela, ba, herriarentzako ikusgai jartzea behar beharrezkoa ikusi dugu. Orain zer pasatzen da? Ba, Sabino Arana Fundazioko materiala gurearen osagarri izango dala. Orduan, ba, alde batetik, beaiek ekarritako panel batzuk joango dia,

gerra nola jun zan ikusteko, batik batik Gipuzkoan, eta bestetik, apaletan herriko historia azalduko da.

### Material hori nondik eta nola lortu duzue?

JON: Ba, familiengandik. Batek eta besteek laga digutena. Guk bi aldeetako materiala nahi genuen, galtzailearena eta irabazlearena, baina irabazleen aldetik ez dugu asko lortu eta atea itxita ikusi ditugunean... Ez atea itxita. Nik uste dut beldurra dabilela tartean. Guretzat hau tontakeria da herria txikia delako eta hemen denok elkar ondo ezagutzen dugulako.

JOSEBA: Bai. Hori hala da. Baina oso adierazgarria da detaile bat: materiala utzi digun jendeak ez du bere ize-nik inon agertzerik nahi. Baldintza hori jarri digute. Materiala eman, bai, baina nondik lortu den esan gabe. Anonimatua gordez, alegia.

JON: Guretzat oso interesgarria zen irabazleen aldetik material gehiago biltzea, gerra bukatu zela ia 70 urte baitira. Baina... Beno, pena izan da.

JOSEBA: Bai, baina, zauri irekiak oraindik bizirik daude. Nik askotan esan ohi izan det, gerra zibilaren gaia oraindik lur eman gabeko hildakoa bezelakoa dala. Eta hildako horri autopsia egin beharra dago gure zauriak itxitzeko. Itxiko al dira zauriak? Ez dakit.

GILLERMO: Gauza bat esango diat, Joxeba: hemen danok ezagutzen gai-

ALTZARIAK  
**OSTOLAZA**  
AROSZTEGIA



Mota guztietako  
altzariak eta  
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325



Julio Beobide 3, tfo. 943 019 869



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



ttuk. Etxe honetakoa halakoa uan eta beste hartakoa honelakoa. Hoi-  
xek reketeak ittuau, beste haixek  
abertzaleak, beste haixek beste era  
batekoak... Aittonak eta amonak  
halakoak izango ittuau, baina bilo-  
bak igual ETakoak edo beste mutur-  
ren batekoak. Etxe askotan gertatu  
dena dek. Gurasoak edo aitton-amo-  
nak zeharo eskubikoak eta seme-ala-  
bak edo bilobak zeharo abertzaliak.

**Hala eta guztiz ere, elkarren kontra-  
ko liskarra egon den lekuetan,  
barruan beti ere harra geratzen dek.  
Ez al zaizue hala iruditzen?**

GILLERMO: Bai, hori hala dek.  
Hemen italianoak, reketeak edo  
falangistak ibiliko ittuau, baina, adi-

## “Gerra Zibilaren sauriak oraindik bizirik daude”

bidez, herritik bialduak izan zian  
izenen lista ez zian kanpotarrek ein.  
Herriko semeak baizik. Zauri irekia-  
ren kontu horretan arrazoi izango  
dek, Joxeba.

**Erakusketa lehen Batzokian egin  
uan eta orain Alondegia Zaharrean.  
Zergatik?**

JOSEBA: Toki haundia behar giñu-  
lako. Material asko degu eta dauka-

gun dana ere ezingo degu azaldu.  
Igual % 60 bakarrik. Armak, adibi-  
dez, lau fusil badauzkagu, bakarra  
azalduko da. Alondegian jarriko  
degu material askoz gehio degulako  
eta toki horretara jende gehio jungo  
dalako. Zumaian egiten dian erakus-  
ketak, azkenengoa Marina Auxiliar  
de Euzkadi izan zan, izugarritzko  
arrakasta eukitzen dute. Nik uste det  
erakusketa hauek barren-barrena  
ikutzen dutelako dala. Zumaian jun  
dan urtean Marina Auxiliar de Euz-  
kadi erakusketara 3.500 pertsona  
sartu ziran. Orain ere errejistro bat  
egiteko asmoa degu.

GILLERMO: Eta erakusketa hura  
ikustera Bermeotikan jende asko eto-  
rri uan. Beaixek zutena baino mate-



**MENDI - ONDO C.B.**  
ELEKTRIZITATEA  
Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569



ARROPADENDA  
Itzurun, 1 Tel. 943 143224



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620



rial gehixo zegola hemen, esan zien gainera.

### Hiri, Joxeba, zerk bultza dik erakusketa hauen antolaketan ardura hartzeko?

JOSEBA: Ba, gehien bat, Zumaia ixkutatuta dagon historia bat daukagula jabetuta egotea. Guk beti entzun izan degu, ba, hau eta hori gertatu zala. Eta orain, dokumentuekin eta paperekin hala zala ikusten da. Material hau ondare haundia da herri batentzat.

GUILLERMO: Beste nazixoetan horrelako kontuak gertatzen dianean, segituan jakiten dixkiagu. Hemen, berriz, etxe askotan ez zekitek bertan gertatu zana. Adibidez, Zumaia bezelako herri txiki batetik 252 lagun herritik kanpora bialtzea... ikaragarria izan uan. Kontu hauek ez dituk ixkutuan

euki behar. Herriak jakin dezala zer gertatu zan.

JOSEBA: Esaten dute bere herriko historia ezagutzen ez duena, historia bera errepikatuzera kondenatua dago. Herri horretan historia hori errepikatu egingo dala, alegia. Eta erakusketa honen mezua edo mensajea horixe izan nahi du. Historia hau dakigunontzat oroitzen bat izango da. Baina ezagutzen ez duenarentzat abixu bat. Aurrerantzean halakorik ez gertatzeko.

JON: Esaera bat era badago esaten duena: bere memoria historikoa galtzen duen herria, hiltzera kondenatua dago.

GUILLERMO: Hemen, Motos Diaz-era Ramón Diazen lehengusu bat etortzen uan. Patxi Bermúdez bera. Eta hark Galiziako telebistako beste lagun baten laguntzaz Luar Na Lubre izeneko musika talde famatu bat sortu zian. Luar Na Lubre hori itxura danez, Galiziako hizkuntza zaharreko hitzak dituk. Kaletarrak ez omen zekitek zer esan nahi dun, eta dakitenak marinel zaharrak edo baserritarrak omen dituk. Eta esanahia ilargia ixkututzen dan momentua omen dek. Beno, ba, hemen Gipuzkoan eman zuten kontzierto gutxiren artean, Zumaian bat eman zien. Itzungo plaian. Ba, hark emaldiaren hasieran, kontziertoaren aurretik, hau esan zian: El pueblo que pierde sus raíces, pierde su identidad. Eta hori egixa dek.

JON: Amaitu aurretik, hau nahi nuke azpimarratu: hemen Zumaian frankistek egin zuten lapurreten arte-



tik, bat oso berezia da. Zumaia ospitalean Hego Euskal Herri mailako ebakuntza-gela onena eta modernoen zagon. Ebakuntza onak eta oso arrisksuak egiten ziren, buru trepanazioak, adibidez. Ba, ebakuntza-gela hori oso-osorik Molaren tropek Zestoara eraman zuten, han beraiantzako jarri zuten ospitalerako.

### Besterik?

JON: Bai. Erakusketa honetan itsasoko gerrako materiala ez da gehiegi ikusiko. Ez material gutxi daukagulako, alderantziz baizik. Alondegia Zaharra erraz betetzeko adinako materiala degu eta horregatik itsasoko gerrako erakusketa bat aparte antolatzea pentsatu degu. Ez dakit noiz izango den, datorren udazkenean edo hurrengo udaberrian-edo. Dena den, herria jakinaren gainean jarriko degu.

# EGOKI



Erloju  
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA**  
**ITURGINTZA S.L.**  
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA**  
**-ZORU BERO-EMALEA**  
**-GAS INSTALAZIOA**  
**-GAS NATURALA**  
**-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
Tel. 943 14 33 69



ibilbideak

Aritzetan kokatuko da Gipuzkoako errauste planta.

## Orio-Ibaeta: autopista, baserria eta natura ezezaguna.

XABIER ARANGUREN

Gaurko ibilbidea alternatiba oso egokia da txirrindularientzat, errepide nagusiko kamioi eta autoen abiaduraren arriskutik kanpo. Oriako erriberako basoaren zatia beste era batera ezagutu beharko dugu (agian, onena txalupa da), ikuspegi berri eta ezezagunak edukitzeko.

Oriora joango gara trenez, oso era egokia baita bizikleta eraman ahal izateko. Geltokitik irten eta ibaia zeharkatuko dugu, eta erriberaren ertzeko etorbide berri-tik Ortzaiakako auzoraino joango gara. Lehen erribera zen eremua orain erabat hondatuta dago zati honetan eta garai beteko padura eta hegaztien askatasun eremua

desagertuta dago. Porlangintzaren "kirol" berriak beste altxor txiki bat zanpatu du.

Berriro errepidera aterako gara eta Oriorantz 200 metro egingo ditugu. Bihurgunean eskuinera hartuko dugu, Txankako baserriaren parean. Aldapan gora bi mendiren arteko estugunetik pasa eta Txankako erroten aurriak ikusiko ditugu erreka ertzean. Laster pasako gara autopista azpitik Igeldora doan bidetik. Aldaparen alboetan ditugu Kallaberro eta Aizperro baserriak. Gorago, erreka zuloa pasa ondoren, Itxaiz baserriak ditugu eskuinean. Bertara joko dugu. Itxaiz Behekora jaisteko porlanezko pista segi maldan behera eta berriro ditxosoazko autopista azpitik pasa behar. Nabaria da sortzen den kutsadura akustikoa.

Berriro gaude bi haitzen artean, baina tarte hori pasa aurretik presa koskor batek Koxkollo erreka geldiarazten du. Presa horrek Sarikolako olarekin zer ikusia omen zuen, makina edo errotak mugiarazteko. Maldan behera Gaztelu baserrira jaitsi eta berriro ezkerrean doan pistatik malda gorantz hartu behar da. Erritmoa hartuz goaz,



#### Erreferentziak

Orio: 0 km.  
 Ortzaika: 1 km.  
 Itxaiz baserria: 3,5 km.  
 Etzabal baserria: 6,3 km.  
 Arratzain baserria: 8 km.  
 Igara: 11,7 km.  
 Ibaeta: 13 km.

#### Jakingarriak

Luzera: 13 km.  
 Igo beharrekoa: 275 m.  
 Iraupena: 4 ordu oinez; 1 ordu eta 30 minutu bizikletaz.

arnasestuka, zelai eta sagarrondoan artean.

Horrela, Arrillaga Handi baserrira helduko gara, beti ezkerreko bide nagusitik. Baseri hau ibilbide honetako ikusgarrienetakoa da; egurrezko zutabeak hormetan baserriaren kanpoko sendotasuna mantentzen du.

Aurrerago aldapa amaitu eta bagoaz beherantz; gure eskuinean Arrillaga Txikia zenaren lau hormak ikusiko ditugu. Orain dela urte batzuk erretako baseri hau oso ikusgarria zela dirudi, oraindik nabaritzen diren ezaugarri arkitektonikoengatik.

Hirugarren estugunean gaude, harkaitz artean. Erreka dator autopista doan ingurutik, baina ez gara tarte honetatik pasako. Paraje polit honetan lantegi bat eraiki dutela ikusiko dugu eta lur pila baten gainean itsasontzi baten kabina apaingarri berezia da inguruko baso eta naturaren artean. Berehala gaude bidegurutze batean eta guk zuzen hartuko dugu maldan gora, Arratzain jatearen erreferentziari segika. Aldapa gogorra da Etzabal baserrira heldu arte. Gero gozatzen joango gara bertatik ikusten den ikuspegiarekin, bereziki Oriako erribera

aldera, Aginaga eta Usurbilgo baseri eta herriarekin; mendialdera, berriz, Ernio eta Pagoeta nagusi dira.

Beste bidegurutze bat eta berriro Arratzain aldera zuzenduko gara. Hauxe dugu ibilbidearen puntu gorena, Bordatxo mendi azpian. Hemendik Ibaetara dena da jaitsiera; beraz, txirindulariak berehala egongo dira helmugan.

Arratzaindik behera, Artxubieta baserriaren bihurtuena pasa ondoren beste bidegurutze bat dugu. Ezkerretara hartu, autobide azpitik pasa eta eskuinera hartu Igarara jaisteko. Laster, Maskolaitz baserrian egongo gara eta errekan urmael bat eraiki dutela ikusiko dugu, bertako igel berezi baten bizitoki eta babesgunea dena. Hemendik Igarara erreka albotik joango gara erribera baso aberatsaren itzalean, gustura. Dena den, laster aterako gara Igarako zurrumbilora eta bat-bateko aldaketa nabaria izango da... Garai bateko baserriak desagertuak, industrialdeak dena jan du. Nostalgikoez gogora ekarriko dute haurtzaroko pasarteak, zumardi eder haiek gogoratzean... Zapatari, Lautximeneta, Inpernua... zein urruti gelditu diren garai haiek.

## "Andria eta bixok dantzan ari ginanian, jendiak korrua eiten zian gu ikusteko"

ABELIN LINAZISORO

**Gerra aurretik, zuen mutil gazte garaian, festarik festa ibiliko zinteen, ezta?**

Bueno! Dantzan numero uno! Gu, bi anaixak, ezpata-dantzariak gittuan. Hamen batzokixan ikasita. Akordatzen nauk behin, guk dantzan ein ginien, eta bukatu ondoren batzokira igo gitxuan. Moila aldera jotzen zun tokixan egon gitxuan direktibakoak zer esango. Hauek hamaiketakua ein behar zien eta etorri zikuk tipo bat esanaz hura kontzejala zala eta handik ez moitzeko direktibakuak buelta ein arte, igual dantza ein beharko giñula-eta. Haixek hamaiketakua eta guk limonada. Eta nik, zein da, ba, hau honela agintzeko!? Nik hari, andregaixa kanpuan zai neukala eta banijoala. Hark, berriz, handik ez moitzeko. Arrate alkiak zerbait esan bazigun, hari errespetatuko nitxuan, hura gizona huan-eta. Baina, kontzejal hari? Ezta pentsatu ere. Balkoitik salto ein eta andregaixena jun nitxuan.

Beste batian, Donostixan dantzari alardia ein huan eta hamen zortziko sei grupo ein ginixkien. Batzuek betikoak, profesionalak, eta bestiak hemen lau

salto eiten ikasi eta Donostira. Zortziko grupua ona gitxikan, Graxian, gu bi anaixak eta kuadrila bat. Formala. Eleiza juteko-eta ibiltzen giñanak. Beste kuadrila, Luxio, Tamoni eta kuadrila, hauek ere nahiko onak. Donostixan kristonak ein giñixkien. Jata, periodikuak, rebistak, ziniak eta danak ekarri zien hura.

Beste batian, jun gaittuk Zautza ezpata-dantza ein behar giñula-eta. Jun gaittuk han San Pelayora, ailegatu dek ordua eta... Gaztetxoek Zumaiko kuadrila oso-oso falta! Non dia zumaia-rrak?, hangiak. Baten batek esan zioan honei: Han, arboletan daude. Hara jun dia. Ai, mekauen! Gu danok dantzako zai. Eta saltaka hamen dittuk danak.

*"Antzerkixan, berriz,  
gure arreba ere  
fenomenua huan.  
Hala behar bazan,  
negar igual eiten zian.  
Egitako malkuakin, e?"*

**Zertara joan ziren, ba, arboletara?**

Esangoiat, pa. Bila jun zanak: Hi! Benga! Soinua hasi dek-eta! Zer eiten dezue hemen? Inguruko jendia, berriz, parrez eta parrez. Dantzari txixiak, 12-13 urteko mutikoak, alkandoraren kolkua ireki eta sagar danak kolkotik behera! Sagar lapurretan, hi! Jendearren parrea! Danen bistan ireki zien kolkua gainera. Hura ridikulua ein giñuna! Hantxe bertan sagasti haundixa zeon eta laster enteratu ittuan non zeon. Eta gu lotsatuta. Nikolax eta Joxekutx Albi zu eta hauen anaixa Josu, gerran hil zana, hauek ere lotsatuta. Gero, batzokixan, funtzixuak eiteko-eta, primera dama gure arreba huan. Paperik haundixenak, arrebak eta Xixili Urbietak eiten zitien. Neuk ere bitan ein nian lana Xixilikin.

**Zenbat funtzixo egiten zen? Hilean behi-edo?**

Ez. Gehixo. Preparatzen zanian. Jaiero igual. Funtzixo diferentiak. Batzuetan antzerkixa eta bestetan igual poesixa botatzen. Sardiñaren alaba huan elegantia poesixa botatzen. Eskuak eta besoak ondo moituta-eta. Dana euskeraz eta oso ondo. Profesionala ematen



zian. Antzerkixan, berriz, gure arreba ere fenomenua huan. Hala behar bazan, negar igual eiten zian. Egitako malkuakin, e? Jende dana harrituta. Egitan ai dek negarrez! Primera dama huan. Maria. Oaindikan bizi dek. Ramón Vizcaino-n andria. Gu bixok bakarrik geatzen gaittuk bizirik. Bixok elkarrekin ibiltzen gitxuan itxian. Hark paper bat eta nik bestia. Hark segituan ikasten zian, eta buruz bota. Nei ere hartuidan, ba, nik. Ni oaindik berde eta hark: Eoskorra! Noiz ikasi behar dek? Nik den-bora gutxiago nian ikasteko, eta hark: Gizon danak igualak zeate! Beti zuena ein behar! Ibili-ibilixan neuk ere ikasi ein behar izaten nian. Josten ere ona huan Maria. Hari danak ondo irten zioan. Gerra garaixan Donostira jun huan.

### Zuekin batera Bilbora joan zela esan ez dezu, ba?

Bai. Baina Bilbo hartu zutenian, nora jungo huan, ba? Mariak Zumaira buelta ein eta hamengo agintariak: Maria Manterola no entrará aquí! Donostira

bi ahizpak. Jostuna huan. Itxian ere hark jostuna eukitzen zian laguntzeko. Herritik ihesi ein behar izan zian. Hamen kastigu bat emateko-edo deitu ein ziuere eta Mariak ospa. Barandiaran, Faustino Pastor eta hauek oso etxe-koak ituan, eta hara. Dana Ona tabernara. Hemengo etxeoandriaren ahizparen gizona, Faustino Pastor, Joxe Antonio Agirreren guardiakua huan. Intimua. Oaindikan ere han hil dek hura. Frantzi-

tzen ziuere ondo josten zunai. Han ateratzen zian dirua. Jornal ona. Sei edo zortzi ordu josten eman, gabian tabernan ontziak-eta jasotzen lagundu eta komodos. Han ezagutu zian Ramón Vizcaino. Hau alarguna huan, ume bakarra zian eta Dana Ona tabernara juten huan jatera.

### Hemen Zumaian, neskatan azkar hasi al zineten?

Etzak pentsatu. Batzuek bai. Benito galtza haundixak jantzi zituaneako hasi huan, motel. Gu geroxeago, baina dantzan numero uno. Bai agarrauan eta baita ezpata-dantzan ere. Sueltoan ez nitxuan hain ondo moldatzen, baina tangoak, balsak... Eta egitan esaten diat: Andria eta bixok dantzan ari ginanian, jendiak korrua eiten zian gu ikusteko. Dantzako afizixo haundixa izan ezkeo, ikasi, ikasi eiten dek. Dana bezelaxe.

Eiten ez badek, ez dek ikasten. Txarra izaten huan kalabazak ematen ziatenian. Baina ondo ertentzen dunian, ondo erten dik, eta bale. Gero neskaren batekin konfiantza eiten badek eta ez badik retxazatzen, ilusioa eiten dik. Kalabaza eta kalabaza jasotzen badek, orduan, hamen jai zeok, esaten dek.



xan. Honea bueltatu gabe. Faustino bera nazionalista huan, baina bere anai danak gorrirak. Dana Ona-koak alargunak ituan. Altxirri Pototon arrebak. Mariak han sukaldian laguntzen zian eta itxian josi eiten zian. Etxe bat bilatu ziuere eta ondo paga-



TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694

### AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsiának
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA



Zeozar txarra zeukat nik. Baina ameto eiten badik, joino!, ez nauk txar-txarra izango, ameto eiten dik-eta. Neskak ez die ridikulua ein nahi izaten. Hark ere bere modukoa nahi izaten dik. Esanda bezela: Dantzan numero uno. Gehixe-

andria ere, nire moduan, dantzaixa huan. Halaxe, gu dantzan eta hura goitik gustoa begira. Erakua, gustoko pareja baldin badaukak, errazago dek. Hi moitzerako berak ere bazekik nora hoan. Dantzako instintua. Gorputza ere haundi xamarra zian eta ni beti harena.



**Gerra aurean Amaya zinea ere ba al zen?**

Amaya gerra aurrian ere bahuan. Gerra garaixan hotela ospitala bihurtu zien eta zinea itxi ein zien. Baina zine Amayara gu mutil gaztiak ginala juten gitxuan. Zine mutua. Txulo-eta eoten ittuhan portero.

gixa bezela. Gerra aurretik bandako azkeneko direttore eon zanari, Donostiarra hau, jendia dantzan ikustia gustatu eiten zikuan. Pieza polittak jotzen zitian eta hura goitik beira eoten huan. Egund batian etorri zikak eta esan zian: Oye! Teneis que bailar esta pieza. Andria eta bixok harentzat ezagunak gitxuan, bixok tamaino berdinekoak eta

Zine Maitena hasiera batian batzokixa huan. Gero Eliseo etorri huan. Ez zekiat seguru zeinek jarri zuten zinea, Eliseok edo Benigno Arrietak. Hoixen aitta nagusi haundixa huan. Balentziaganeko gerentea izan huan. Dirua hartu eta Bilbora jun hittuan. Gero, gerran, kartzelaren barrotietatik Benignon alabak-eta ikusten ginixkien han

*“Orduan Bilbora jutia gauza haundixa huan. Ezkondutakoak biajenobiosen hara juten ittuhan”*

behian egur bila-eta zebiltzala. Munduko bibidore haundixenetakua, egu-nero dirua erretzen zuna, eta bere umiak, han, gajo haixek egur bila. Ba, esanda bezela, Benigno hau Eliseokin juntatu huan eta: Vamos ha poner un cine en Zumaya, esan zien. Lokala ikusi zien eta zine Maitena martxan jarri zien. Batzokixa ordurako ez zeoan han. Lokal hura Etxabe IV.ak erabiltzen zian bodegatzako edo trastiak gordetzeko. Batzokixa handik Erribera kaleko batzokira pasa zalako. Hau askoz ederrago eta haundixo huan. Batzokiko barran lan ein eta batzokixa zaitu Mendaroko batek eiten zian. Barra gaineko itxian bizi huan. Gerra ondorenian batzokixa luistarren zen-

**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058

CROISSANTERIA  
pizzak  
hanburgesak  
bokatak...  
**Marina**  
Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

**ZALLA**  
Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387



Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak**

**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



trua bihurtu zien eta hau zaitzen Bixente Rapa eoten huan. Baina, batzokixa zeon garaixan, Aberri Egunean mendi danetan sua piztu behar huan eta gu ostiral santu egunian Indamendira jun gitxuan belarra preparatzera. Egunian bertan, goizian goizo, laster ikusi ginien Indamendi gainetik Bizkaixan sua. Sua hamen, sua han... Katxaperuak ere bai... Eta gu Indamendi tontorrian: Zer ein behar diagu? Belarra behar baino gutxiago ginien-eta. Halako batian batek: Hi! Hor meta zeok! Hantxe muturrean zeon metari su eman zioagu eta laster ikusi ginien beheko baserritik erten zutela orruaz! Eta guk: Andadio! Beste aldera ospa trenbidia harrapatzera! Goizeko lau t'erditan-edo ailegatu gitxuan Zumaira. Aberri Eguna. Jantzi eta hiru perrotxiki patrikan giñula, Bilbora.

#### **Nola joan zineten Bilbora?**

Autobusean. Hiru autobus-edo izango gitxuan. Orduan, gainea, Bilbora jutia gauza haundixa huan. Ezkondutakoak bajaranobiosen hara juten ittuan. Oain Madrida edo Parisa bahijoa bezela. Danok paketiakin jun gitxuan. Jatekua-kin. Bilbon hoteletara jun zan jendia ere bahuan, baina gu ez gitxuan horre-aino ailegatzen.

#### **Indamendiko metaren kontua nola geratu zen?**

Baserritarrak honea etorri ittuan, baten-batek jakin zian, nonbait, gu Indamen-

din izan giñala, honei beste batek esan zioan ezpata-dantzariak geure kaja giñula, eta, guri kajatik dirua kendu! Hura pena! Guk ez ginien ondo ein eta uste ginien gure nagusiak lagundu eingo zigula, baina...

#### **Bilboko Aberri Egun hura nolakoa izan zen?**

Mesa nagusi haundixa ein huan. Barrua bete-betia eta kanpuan altabozak jarri zitien. Hainbeste mila pertsona alkarrekin! Gauza haundixa izan huan hura! Desfilia ein huan eta herri bakoitzak bere ikurrina eraman zian. Gauza ederra izan huan hura! Han bermeotarrak! Han Elantxobekuak! Han zumaiarrak! Eta ikurrinaren atzetik herriko ixa danak eta atzetik ez zebilena, ba, kanpuan desfilia ikusten. Hura jendetza! Gran Via-ren akaberan hasi eta Parte Zahar aldera, Gran Vian kabitu ezinik. Asko nekatu gitxuan, oso goizo jaikita eta gure moduan asko ia lorik ein gabe mendixetan sua pizten ibili ginalako. Baina hala ere pozik. Saltoka eta dantzan asko. Bermeotar erdi zoro haixek ein zitien dantzak! Edozein lekutan hasten ittuan gainera. Joxe Antonio Agirrena hurreratu, lehendakari!, esan eta belauniko jartzten ittuan. Baina egitako abertzaliak, e! Eskuadi!, esaten zien. Euzkadi ez, e! Eskuadi! Bilbo inguruko herri danak jun ittuan. Gipuzkoarrak ere asko. Jende asko zeoan Bilbo ezagutzen ez zutena. Donostira jutea guretzat erra-

*“Bilboko Aberri Eguna gauza haundixa izan huan hura! Desfilia ein huan eta herri bakoitzak bere ikurrina eraman zian.”*

zago huan, baina Bilbora... nahiko zaila. Hara zertara jun behar dek, ba? Baina Aberri Egunerako bai. Erropak eta bazkaixa preparatu eta aurrera. Bilboko hura sakratua izan huan. Joxe Antonio Agirrerri mitina botatzerakoan negarrak ertentzen zikuan berari ere. Guri ere bai. Hizlarixa huan hura! Jo! Balkoira erten zian eta igual ordu erdi bat eon huan hitz egin ezinik. Txaluak, txaluak eta txaluak! Eta hizketan gozua huan. Bai. Hura huan gozua hizketan! Euzkotarrak!, diarra eiten zian. No! Jatorra huan. Hizketan jardutzen zunian, emozionatu eiten zian. Eta hitz egin ondo. Ez bizkaitar itxi hori. Hixkera naturala eta garbixa. Ondo. Oso ondo. Hark balkoira ertentzen zunian, usten Jesukristo azaldu zala. Egixa dek, e! Zumaitik jende asko gitxuan. Joxe Etxabe eta hauek ere bai. Eta gu, amari dirua kenduta bahike, galtzerdixak salduta bahike, baina Bilbora.

jarraituko du...

*Rapaia*  
Zaldua

Erribera Kalea 20750 ZEMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**SAIOA**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

**Aita Mari 3.blokea**  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

## Txomin Agirre estazioan

Txomin Agirre eta Carmelo Echegaray, bata Zumaian eta bestea Gernikan bizi izan ziren, joan den mendean lehen laurdenean. Lehena, ondarrutarra eta apaiza, 1889an Zumaiaara destinatu zuten, moja karmeldarren kapelau. Bigarrena, berriz, jatorriz azpeitiarra, denbora batez Santanderren eta Zumaian bizi ondoren –amaren parteko familia zumaiaarra zen–, 1895ean "Cronista de las Provincias Vascongadas" izendatu eta Gernikara aldatu zen bere emazte eta seme-alabekin.

Argi dago lagun handiak izan zirela. Elkarri bidalitako gutunak irakurri besterik ez dugu, horretaz jabetzeko. Txomin Agirrek anaiatzat tratatzen zuen Echegaray. "Hermano mío del alma... hermano queridísimo... hermano verdadero... te quiere cada día más tu hermano que te devuelve estrechísimo abrazo... hermano agradecido... tu sincero y agradecidísimo hermano... te quiere tu hermano del alma... amigo mío del alma... podremos no escribirnos, pero no querernos imposible... tu hermano... eres mi verdadero hermano y ¡bien sabe Dios! te quiero como tal con toda mi alma...". Eta Carmelo Echegaray berdin Agirre.

Adiskidetasun hark bi eragile zituen: euskal kulturaren alde egiteko gogoia eta politikari buruzko adostasun ideologikoa. Biek ala biek garaiko aldizkaririk ospetsuenetan idazten zuten, eta integrista petoak ziren –hau da, erregionalista espainiarrak–, hala liberal eta errepublikazaleek nola jaio berriak ziren bizkaitar eta sozialistek euren onetik ateratzen zituztenak.

Elkarrengandik urruti bizitzea hasieran arazoa izango zen, noski, bi lagunentzat. Denbora pasa ahala, ordea,

aurrerapauso handiak emango ziren garraio bideen alorrean, eta bi lagun arteko harremanek –batik bat, behin XX. mendean sartu eta Bilbo-Donostia trenbidea inauguratu zenez geroztik– lehen bezain estuak izaten segituko zuten. "Azkenean, 1901eko urtarrilaren lehen betiko loturik geratu ziren, metro bateko zabalerako trenbide bitartez, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuak", dio entziklopediak.

Trenaren agerpenak aldaketa ugari eragingo zituen herritarren bizimoduan. Txomin Agirrek, esate baterako, sarritan bidaiatuko zuen Zumaiaitik Donostia zein Bilbo aldera. Haren Kresala eta Garoa Donostiako Euskal-erria eta RIEV aldizkarietan argitaratuko ziren, atalka argitaratu ere, lehena 1901 eta 1905. urte bitartean, eta bigarrena 1907 eta 1912. urte bitartean. Carmelo Echegaray, berriz, maiz irtengo zen Gernikatik Donostia eta Bilboko artxibategiak arakatzera, bere lanbidea zela kausa. Joan-etorri haiek guztiak ezinezkoak ziratekeen, noski, trenik izan ezean.

Edonola ere, trena ez zen garraio bidea bakarrik, jendearen elkartoki eta topagune ere bazen. Geltokiek aukera asko eskaintzen zuten alde horretatik. Hona Txomin Agirrek Echegarayri 1908ko abenduaren hogeita hamarrean idatzitako gutunaren zati bat: "Mañana, víspera de primer viernes, tengo confesionario casi para todo el día. Sin embargo, avisame cuando pasas, y, para acompañarte aunque sea hasta Arrona, saldré a la estación, si no paras aquí". Hots, Txomin Agirre trenera aterako zitzaion Carmelo Echegarayri Zumaian. Behin trena estazioan, bi aukera aurrikusten zituzten: edo Echegaray trenetik jaitsi eta Zumaian geratzen zen

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

*Juaristi*  
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



**BASUSTA**  
ERRETEGIA


Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

abadearekin hizketan hurrengo trena iritsi bitartean, edo Txomin Agirrek trenera igo eta Arroaraino segitzen zuen bidaia bere lagunarekin, gero handik Zumaiara itzultzeko.

Halako hitzorduak ohikoak zirela ematen du, bi lagunen artean. Hona, bost hilabete geroago, 1909ko ekainaren 4an, Txomin Agirrek Echegarayri idatzitako gutunaren zati bat: "Queridísimo Carmelo: He pensado ir pasado mañana, domingo, por la tarde a Bilbao, para ver ese día la última representación de Maitena... ¿No podrías acompañarme? Por lo menos te veré en la estación de Amorebieta, ¿verdad?". Pasarte honen arabera, beraz, halako tren topaerak ez zituzten Zumaiako estazioan bakarrik antolatzen bi lagunek. Amorebietakoa, bestalde, erraz ulertzen da: bertan gurutzatzen ziren Bilbo-Donostia trenbidea eta Amorebieta-Gernika errepidea.

Ohikoena, ordea, Zumaiako estazioan elkartzea izango zuten. Hona 1911ko abenduaren hogeita seian Txomin Agirrek Echegarayri idatzi zion gutunaren zati bat: "Sentí muchísimo que no quedases aquí (en Zumaya) el día 22 o 23. No pude salir a la estación, por ser la hora que era". Alegia, ezin zela estaziora noiznahi atera. Izan ere, Txomin Agirrerren ordutegia estu-estu lotua zegoen apaiz bizimoduari, eta, iluntze partean adibidez, zortzietan afaldu eta bederlatzi eta erdietan oheratu ohi zen.

PEDRO ALBERDI



*Gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

Upela plaza, 4      tel: 943 860970

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

*Maitena*  
ileapaindegia

saioa olmo artista

# "Hezitzaileek ahalegina egin behar du kontzeptu klasikoa bakarrik ez t

BALEIKE

Saioa Olmok, Artes Divergenteseko artista batek, Zumaian egiten ari den proiektu artistikoaz hitz egin nahi zuen Baleiken, proiekturako Zumaiaiko jendearen laguntzaren bila baitabil.

**Asko eztabaidatu den galdera batekin hasiko gara. Zer da zuretzat, gaur egun, artelan bat?**

Bai, argi dago artelan bat zer den ulertzeko modu asko daudela eta, gainera, denboran zehar asko aldatu dela kontzeptu hori. Ikerketa estetikoan oinarritzen den artea dago, gizarte mugimenduekin lotura handiagoa duen artea, artearen ibilbideari buruzko artea, objektu fisikoari garrantzi handia ematen dion artea, eta ematen ez diona, beste esparru batzuetako tresnak erabiltzen dituen artea (publizitatea edo komunikazioa), etab. Zer arte interesatzen zaidan galdetzen badidazu, esango dizut ohikotasunetik ihes egiten duten ekimenak interesatzen zaizkidala, eta ohikoa den ingurua ikusteko eta ulertzeko beste modu bat eskaintzen dutenak.

**"Nik ez dut artea ulertzen" dio jendeak. Artea ulertu egin behar al da?**

Hori entzutean, bi gauza izan behar dira kontuan: zer iritzi duen pertsona horrek arteaz, eta aurrean duen lan artistikoak bera hartzailetzat aurreikusitako duen. Jendeak artelanetarako dituen



*"Proiektu honek Zumaiaiko jendearen parte hartzea bilatzen du"*

espektatibetan eragin handia du arteaz jaso duenak; hau da, zer erakutsi dioten dela artea. Uste dut hezitzaileek ahalegin handia egin behar dutela artearen kontzeptu klasikoak soilik ez transmititzeko; artistok, berriz, oso kontuan izan behar dugu nola jasoko den gure lana, zer baldintzatan aurkeztuko den, eta, bestetik, jendeak atea pixka bat zabaldu beharko ditu. Gauza bera, batzuentzat, agian, artea izan daiteke, eta beste batzuentzat, berriz, ez. "Nik ez dut artea ulertzen" entzuten dudanean, ez dakit ongi zer pentsatu: baliteke apaltasunagatik esatea (pertsona horrek ez du iritzia emateko ziurtasu-

nik, eta ahalmen hori adituen esku uzten du); edo kortesiagatik agian (ez zaio gustatzen, edo ez zaio axola, baina nahiago du ez esan); edo, besterik gabe, zentzumenen bidez iristen ez denez, obrara arrazoiaren bidez iristen saiatzen da, baina bide horretatik ere ez da iristen, edo datuak falta zaizkio. Edonola ere, nahiago dut "Gustatzen zait / Ez zait gustatzen" edo "Interesatzen zait / Ez zait interesatzen" entzutea, hartu-eman handiagoa izan daitekeelako.

**Zertarako balio du arteak?**

Garbi dago artea ez dela bizitzeko ezinbesteko ondasuna, ogia edo etxebizitza diren moduan, baina ez zait iruditzen luxuzko artikulu bat denik, ez, behintzat, niri gehien interesatzen zaidan artea. Banako gisa, zure kezka edo behar emozionalak, estetikoak, bizipenezkoak... arteak erantzun ditzakeelako izan dakizuke baliagarria artea. Gizarteari dagokionez, ohikoa ez den logikari erantzuten dioten pentsamendua eta ekoizpenak sortzen laguntzen duela uste dut. Aldaketen laborategia da, eta aldaketa horiek beste esparru batzuek balia ditzakete. Gero, batzuek edo besteek arteari ematen dizkioten -edo dizkiogun- funtzioak daude, baina ez zait iruditzen funtzio nagusiak edo arte bihurtzen dutenak direnik. Funtzio horiek ez lituzkete artearen lehen funtzioak estali behar: turismoa

# ute artearen transmititzeko"

erakartzea (Guggenheim, esaterako), inbertsio ekonomikoa izatea (Picassoren koadro bat, adibidez), edo marka baten irudi izatea (adibidez: Caja Madrid erakundearen laguntza lehiaketa artistikoetan).

## Zer da Artes Divergentes?

Artes Divergentes 10 artista eta 10 enpresa batzen dituen programa bat da. Lankidetzaz horren emaitza Zumaian ikusi ahal izango da, Zumaia kaleetan, ekainaren 1etik aurrera, uda osoan. Zuloaga museoa-ren, Bilboko Windsord galeriaren eta Xabide taldearen ekimena da. Ez da horrelako apusturik egiten ez artegin-tzan, ez enpresetan, eta uste dut merezi duela saiatzea.

## Zergatik interesatu zitzaizun Artes Divergentesen parte hartzea?

Enpresa berritzaile baten eta artista baten artean zer-nolako harremana ezar zitekeen ikustea interesatzen zitzaidan. Ea posible zen bien arteko lankidetzaren bat, ea elkarri zerbait eskain ziezaioketen. Bestetik, une honetan proiektu batean nabil lanean: Euskadi TM Euskadi marka komertzial baten izena ere ba al da? (www.euskadi-tm.com) du izena, eta, nolabait, lan horren arloak Artes Divergentesen esparruan lantzen jarrai nezakeela ikusten nuen, marka irudiei eta tokiko kulturari buruzkoa baita.

## Zein izango da zure proposamena Zumaian?

Nire proposamena pertsonen antolatzeko moduari buruzkoa da. Irizar karrozeriarekin ari naiz lanean Artes Divergentesen. Irizarren berrikuntzarik handiena kudeaketa eredia da: bertako langileak nola antolatzen diren, zer estrategia pentsamenduren araberak. Zumaian pertsonak nola antolatzen diren aztertu nahi nuke, zer harreman dauden, talde kontzientziarik dagoen. Garbi dago herri bat herria dela, eta enpresa bat enpresa, baina bi errealitateak parez pare ikusita, pertsonen antolaketa moduez hausnartu ahal izango dudala uste dut: Irizar eredia eta Zumaia eredia.

## Zer forma izango du proiektuak herrian?

Proiektu honek Zumaia jendearen parte hartzea bilatzen du. Batetik, Zumaia jendea, elkarteak, erakundeak ezagutu nahi ditut, jendearekin geratu eta elkarrizketa laburrak egin. Ekarpinak egin nahi dituztenak ere ezagutu nahi ditut. Ekarpenek "Zer da Zumaia zuretzat" gaiaren ingurukoak izan beharko dute, eta edozer izan daiteke: marrazki bat, argazki bat, eskema bat, esaldi bat... Jendearen ekarpen horiek Amaia plaza jarri nahi ditut, egitura metaliko batean. Bestetik, herriko harremanen inguruan osatutako ideiak harreman eskemetan islatu nahi ditut; eskeman horiek Zumaia



informazio turistikoko mapen ondoan jarriko dira. Zumaia pertsonen arteko harremanen bidez erakustea da nire asmoa. Norbait "Zer da Zumaia zuretzat" kontatzera animatzen bada, Turismo bulegoan utzi dezake bere ekarpena, maiatzaren 25a arte, edo, bestela, telefonoz deitu eta geratuko gara (656757774), herrian ibiliko naiz eta.

## Askok esango dizute egiten duzuna ez dela artea, ezta?

Bai, batzuetan, egonezina sortzen du azkar kokatu ezin duzun zerbaiten aurrean egoteak. Nik garbi dut artetik ari naizela lanean (beste diziplina batzuek sartzen badituzte ere), ohiko forma edo material artistikoak aukeratzeko ez ditudan arren. Ez naute gehiegi kezkatzen etiketek, egiten dutan leku interesgarrietara naraman bitartean, edo lana modu horretan garatzen jarrai dezakedan bitartean. Uste dut, gainera, espazio ambiguoetan dauden gauzek badituztela abantaila batzuk: ezin dira hain erraz kontrolatu. Bestalde, uste dut nahasteko edo huts egiteko mugan ez bazaude, ez duzula nahikoa arriskatzen, gehienetan porrot egingo duzun arren. Eta uste du artea egitean, edo berrikuntzaren bat ekarriko duen edozer gauza egitean, arriskatu egin behar dela.

## San Inazio - San Frantzisko

ISMAEL MANTEROLA

Arritokietako Andre Mariaren ermitan XIX. mendean pintatutako bi koadro daude. San Inazio Loiolakoa irudikatzen duena Antonio Maria Lekuonak pintatu zuen 1874an, eta San Frantzisko Borjakoa azaltzen duena Juan Jose Etxanizek 1889an.

Bi santu jesuitek harremana izan zuten Martin Lopez de Hernani Zumaiako bikarioa izan zenarekin, XVI. mendearen hasieran. Apaizak debozio handia zion Arritokietako Amabirjinari eta badirudi S. Frantzisko Borjakoa Zumaian izan zela eta Andre Marian Amabirjinari otoitz egin ziola.

Istorioak alde batera lagata, bi koadroak XIX. mendearen bukaerakoak dira eta lehenbizikoan San Inazioren irudia pintatu zuen Antonio M<sup>a</sup> Lekuonak, Bilbon finkatutako pintore tolosarrak (1831-1907). Ohitura koadroak pintatzen zuelako da ezaguna eta Euskal Herriko XIX. mendeko pintore trebeen artean sailkatzen dugu gaur egun.

Hala ere, pintura erlijioso egile moduan ez dirudi oso trebea. San



Inazioren irudia hondo ilunetik argitzen duen gauza bakarra Jesukristoren anagrama da (Jesusen Lagundiaren jantzia ere beltza da). Belauniko dago mahai gainean dauden oihal gorri batzuen aurrean. Jainkoaren argia ikusten estasian egongo balitz bezala pintatuta dago eta eszenan aurpegia eta eskuak dira protagonistak. Azken horiek estatiko xamarrek direnez eta aurpegia ere zozo xamarra, ez diote koadroari kalitate handirik ematen.

Arestian azaldu dugunez, bestea Juan Jose Etxanizek pintatu zuen. Ez

da pintore oso ezaguna, baina zumaiarra dela dirudi. Erroman ikasi ondoren Zumaian finkatu omen zen eta ikerketa gehiago beharko ditugu pintore honen nondik norakoak ezagutzeko.

Borjako San Frantziskoren irudiak San Inaziorenari jarraitzen dio. Belauniko dago, baina jarrera espresiboagoan; gainera, ilunagoa da eta argi jokoak hobeto eginda dauzka. Izpi batek argitzen dituen aurpegia eta eskuak bizitasun handigoakoak dira.

Pintatzeko era askeagoa da, batez ere lurrean eta mahaian, pintura akademikoa pixkanaka baztertu nahiko balu bezala.

Bi koadroek ondo erakusten dute pintura modernoa iritsi baino lehenagoko egoera. Akademian ikasitako pintoreak dira eta horregatik ez diote horrenbesteko garrantzirik ematen pintatzeari; marrazkiari, berriz, gehiegizko inportantzia ematen diote. Gainera, bi koadroek argi erakusten dute pintura erlijiosoaren zein lotuta zegoen XVII. mendeko Espainiako pintura tradizionalari.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Amaiako Plaza  
Tel. 943 14 31 35

**AR** Ricardo J. Azcue Yeregui  
Abokatu • Asegurak  
Finke Administrazioa

txomin aguirre-4. behea  
20.750 zumaiara (giuzkoa)  
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651  
Fax. 943 862746

## ZINE FORUM

maiatzak 26, osteguna, gaueko 10:15ean

# Confidencias muy íntimas

**Zuzendaria:** Patrice Leconte **Aktoreak:** Sandrine Bonnaire, Fabrice Luchini, Michel Duchaussoy.

Leconteren lanetan beti agertu izan dira drama eta komedia, maitasun harreman sakonak eta amodiorik mingarrienak. Confidencias muy íntimas filmak emakume baten barrentasunera eramango gaitu, 40 urteen bueltan krisian sartu eta psikiatra batengana jotzen duen emakume baten barne mundura. Laguntza eske doanean, protagonistak nahasi egingo ditu finantza aholkulari baten bulegoa eta psikiatraren kontsulta, baina emakume protagonistak (Sandrine Bonnairek) arazoak kontatzeko zenbateko premia daukan ikusita, nahi gabeko psikiatrak (Fabrice Luchini-k) isilik geratzea erabakiko du, emakumeak lasai hitz egin dezan. Saihoek aurrera egin ahala, ordura arte inoiz ulertu ez zuen mundua ezagutuko du gizonak. Bi protagonisten arteko duela ikaragarriaren gainean dago eraikita filma, eta Confesiones muy íntimas aldi berean drama ziragarria eta dibertigarria da, pultsu psikologiko handia, ereduzko bukaera bikaina duena.



ekainak 9, osteguna, gaueko 10:15ean

# La sentencia

**Zuzendaria:** Norman Jewison **Aktoreak:** Michael Caine, Jeremy Northam, Tilda Swinton, Charlotte Rampling

Pierre Brossard (Michael Caine) Eliza Katolikoaren babespean ezkutatuta bizi da, harik eta epaile batek iraganean nazia eta gerrako kriminala izan zela jakiten duen arte. Baina Brossarden atzetik ez dabil justizia soilik;

izan ere, hiltzaile misteriosu bat ere atzetik dabilki... Gai honekin, Norman Jewison zuzendari beteranoak (El rey del juego, En el calor de la noche...) thriller arrunta baino haratago doan film ikusgarria egin zuen. Iragana ez da desagertzen eta ustetik gutxienean orainaldian eztanda egiten du. Nazien kolaboratzaile honek halabeharrez egin zuen egin zuena eta orain damututa dago? Lehengo lepotik ote du burua? Justiziak atxilotu egin nahi du, baina nork edo nortzuek hil nahi dute? Bere urteekin Norman Jewison zaharrak ondo baino hobeto frogatu zuen istorioak oso ondo kontatzen jarrai dezakeela Kanadako ekoizpen honetan. Kritiko zorrotzena eta ikusle xumeena gustura lagako duen filma. Erritmo ona, argazki ederra eta antzezlan ezin hobea, batez ere Michael Caine handiarena. Esan gabe doa: Vatikanoa film honen kontra jarri zen.



GOIKO BODEGOIA  
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAIA • Tel. 943 861 191

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

Itzurun  
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



Errategio

OIKIA 943447083



# agenda

## MAIATZA

Ostirala 13: 19.30ean Aita Mari aretoan, Beheko Plaza abesbatza eta Oreretako Maialen abesbatzaren kontzertua.

Osteguna 19, 17:30ean haur liburategian, Ipuinkontakteta. 22:15ean zine saio berezia, Emakumeen Nazioarteko martxa dela eta *Moolaadé*.

Iganganda 22: 12:00tan Aita Mari aretoan Haur antzerkia HIKA : *Groau*.

Osteguna 26: 22:15ean zineforum saioa *Confesiones muy intimas*.

Ostirala 27: 22:00etan, Maria eta Jose ikastetxeko aretoan, DBH 4. mailako Euskara Taldeko ikasleek *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzeztanaren moldaketa.

Iganganda 29: 12:30ean Maria eta Josen, Udal Musika Banda eta Musika Eskolako Tailerraren esku, Kontzertu Didaktikoa.

## EKAINA

Asteazkena, 1: 19.30ean "DIVERGENTES" Inaugurazio ekitaldia, Laian.

Osteguna, 2: Zumaiaiko Interpretazio Zentruaren zabaltze ekitaldia.

Ostirala eta larunbatean: Interpretazio zentruko bisitaldiak.

Larunbata, 4: Arratsaldean zehar, Haurrentzat Birziklapen Tailerrak.

Iganganda, 5: 18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, "Ingurumenua" bertso-antzerkia.

Osteguna, 9: 22:15ean zineforum saioa *La sentencia*.

Ostirala 10: 19:00ean *Zumaia*tik *Zumaia*ra erakusketaren barne, Aranzadi Zientzia Elkarteko hitzaldia *Guda zibileko fusilatuen gorpuen errekupezioak. Guda zibileko hainbat testigantza*.

22:00etan antzerkia, POK-AEK *Euskararen Zazpi Bekatu Nagusiak*.

Domingo 12: 12.30ean Aita Mari aretoan, GU GEUren esku, *Ipuin Musikalak*.

Ostirala, 17: 22.30ean Emakumearen Nazioarteko martxaren barne, Pakitarentzat bakarrik antzeztana.

Larunbata 18: goizean zehar *Euskara eta Kirola* festa

Osteguna 23: 22.00etan San Juan Iturrian, San Juan Suak.



## Japongo tanborrak

Japongo tanborren ikuskizuna izango da ekainaren 11ean Bilboko Arriaga antzokian. Foronda kultur etxeak hau ikustera joateko irteera antolatu du. Sarrerak erosteko edo informazio gehiago izateko Forondara dei egin dezakezue (943861056).

23.30etan Itzurun hondartzan, *Zuberoako su eta olerki ikuskizuna*.

Ostirala 24: 22:15etan zine forum saio bikoitza. *Antes del atardecer + 9 songs*.

Iganganda 26: 11etan hasita ARTISAU AZOKA

Asteartea 28tik uztailaren 1era SAN PEDRO Jaik

Asteartea 28: iluntzean, ZUMAIA SARIAK banatuko dira.

## ERAKUSKETAK

Maiatzak 26-ekainak 19: *Zumaia*tik *Zumaira*.

Ekainak 23-uztailak 10 : *Arau Subsidiarioak*.

Ekainak 24-uztailak 10era CARMEN PALOMERO.

## IRTEERAK

- ARRIAGARA: Ekainaren 11ean, *Japongo Tanborren ikuskizuna* ikustera. Informazioa eta sarrerak kultur etxean (943-861056)

- TURISMO BULEGOAK antolatuta (943-143396)

- maiatza 15 eta 29 TREKKIN DEBA-ZUMAIA bisita gidatua

-BISITA BEREZIA ZUMAIARRENTZAT - SAN PEDRO PARROKIA. maiatzak 28.

- Bilbora: TITANIC erakusketak - Ekainaren 25ean

## DEIALDIAK

- ASTE BERDEA 2005: Ekainaren 1etik 5era.
- ARGAZKI RALLIEA: Gaia- ingurumena. Ekainaren 2tik 5era. Informazioa, Turismo Bulegoan.
- ZUMAIA LORETAN 2005- Balkoi eta Leihotako lehiaketa. Ekainaren 23an. Oinarriak eta izen-ematea Turismo Bulegoan (943-143396) edo Kultur Etxean (943-861056)



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

# ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21



taberna  
**JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083



# Casa BASUSTA



**CASA  
BASUSTA**

LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak




*Etxez etxeko zerbitzua*

Santiago auzoa, 18 TEL: 943 862611

# Citroën C4

## TEKNOLOGIAREN BOTEREA



# ZUMAIA MOTOR

Santiago auzoa 22 Tel/faxa 943 143 143